



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2014KO UZTAILAREN 11KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2014.07.11.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.
Zinegotziak:
Ander Almandotz Indakoetxea jn.
Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.- Alkatearen kargu-uztea.
- 3.- Euskara Mankomunitateko ordezkariaren izendapena.
- 4.-Bernardo Fagoaga Alzuri jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-Pascual Oscoz Gonzalez jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 6.-Angulero eta Bordazulo alderdietako pista moldatzeko aurrekontuak.
- 7.-Medikuaren etxeko bizitzaren atek eta leiho aldatzeko aurrekontuak.
- 8.-Altsasuko Udala: ETB ikusteko mozioa.
- 9.-2013ko kontuak: behin betiko onespena.
- 10.-Arantzako bestak.
- 11.-Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2014ko maiatzaren 30ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,
ONARTU DUTE.

2.- ALKATEAREN KARGU-UZTEA.

Alkateak ondorengo idatzia irakurri du:

”Lehenik eta behin, aipatu nahi nuke nire alkatzetza eta zinegotzi kargua uzteko arrazoia ez dela udaletxeko barne arazoa. Urte hauetan arazoan aurrean hainbat erabaki hartu behar izan ditugu, eta nahiz eta gehienetan denok berdin ez pentsatu, normala den bezala gehiengoaren erabakia errespetatu dugu.

Alkatzetza uzteko nire erabakia, herritar batzuen portaeraren ondorioa da, herritar hauek (gutxiengoak, noski) ez dituzte udaletxe honen prozedurak eta erabakiak ulertzen eta errespetatzen; ondorioz sortzen diren gatazka, zurrumurru eta tirabirek, nire izaera eta egoerari sekulako kaltea egin diote.

Legislatura honetan eta aurrekoan, hau bezalako hainbat egoera bizi izan ditut, eta denok dakizuen bezala, azkeneko gertakari honek gairitu egin nau eta beraz, erabaki zail hau hartzerantz bultzatu.

Bukatzeko gutxi gelditzen zen, 10 hilabete gutxi gora behera, baina hilabete hauek oso luzeak egingo zitzaizkidalakoaren susmoa neukan, eta ezin nuen gehiago jasan. Nire buruari behin baino gehiagotan galdetu diot honakoa:

Zertarako pasatu egoera txar hauek?

Zertarako pasatu gaizki?

Zertarako haserretu jendearekin eta lagunekin ?

Zertarako galdu osasuna?

Puntu honetara ez iristeko modu bakarra udaletxea uztea da.

Azkenik, barkamena eskatu nahi diot herritarrei eta bereziki oraingo udal taldeari erabaki hau hartzeagatik, eta munduko zortetik onena opa diot legislatura honen azken txanpan. Ni laguntzeko eta edozein zalantza argitzen laguntzeko prest egongo naiz.

Agur bero bat.”

Zinegotziak horren jakinaren gainean geratu dira eta onartu Alkatearen dimisioa eta zinegotziaren kargu uztea.

Ondoren, Alkatea aukeratu da.

Ikusirik Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternativa eraikitzen-EA-Alternatiba taldearen zerrenda.

Kontuan hartuz Ander Almandoz Indacoechea jauna dela zerrendako hurrengo berari dagokio kargu hartzea eta hala egin du.

Ondorioz, Ander Almandoz Indacoechea alkate kargu hartu du.

3.- EUSKARA MANKOMUNITATEKO ORDEZKARIAREN IZENDAPENA.

Kontuan hartuz Alkatea zela Bortzirietako Euskara Mankomunitatean Udalaren ordezkari eta hori aldatu behar dela, aho batez, ERABAKI DU:

1) Bortzirietako Euskara Mankomunitatean Ander Almandoz Indacoechea jauna Udal honen ordezkaria izendatzea.

4.-BERNARDO FAGOAGA ALZURI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Bernardo Fagoaga Alzuri jaunak Landatxeko Bordako alderdian 4 haritz amerikanoen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (5. poligonoko 108 eta 111. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bernardo Fagoaga Alzuri jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.



5.-PASCUAL OSCOZ GONZALEZ JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Pascual Oscoz Gonzalez jaunak Egusueta alderdian pinu insignisen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 4. poligonoko 157 D. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Pascual Oscoz Gonzalez jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

6.-ANGULERO ETA BORDAZULO ALDERDIETAKO PISTA MOLDATZEKO AURREKONTUAK.

Angulero eta Bordaxulo pistako kurbak moldatzeko aurrekontua eskatu ziren.

Kontuan hartuz laister berriro ere oihan probetxamendua egin behar dela alderdi horretan eta hondatzen ahal dela gehiago lan horiek burutzen.

Ikusirik hobe dela kurba moldatu lan guztiak egin ondoren.

Kontuan hartuz egindako aurrekontua aldatzen ahal dela egin behar diren lanen arabera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako lanak ez egitea momentuz eta deialdia berria egitea oihan probetxamendua bukatu ondoren.

7.-MEDIKUAREN ETXEKO BIZITZAREN ATEAK ETA LEIHO ALDATZEKO AURREKONTUAK.

2014ko maiatzaren 30ean erabaki zen Medikuaeren etxeke bizitzan bi ate eta leiho bat aldatzeko aurrekontu berriak eskatzea ondorengo enpreseei: Arantza Zurgindegia, Imanol Iturria Zurgindegia, Betiko Aroztegia eta Ireki Leihoak Aroztegia.

Epearen barne Betiko Aroztegia eta Ireki Lehiok Aroztegia aurkeztu dute euren proposamena.

Aztertu ondoren proposamen bakoitza,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Betiko Aroztegia eta Ireki Leihoak Aroztegia enpreseei aurrekontu berriak eskatzea zehaztuz hobeki ezaugarri batzuk.

8.-ALTSASUKO UDALA: ETB IKUSTEKO MOZIOA.

Irakurri da Altsasuko udalak igorritako mozioa. Hau da bere edukia: "Gurean euskal telebistak (ETB) eskaintzen dituen euskarazko bi kanaletako bakarra ikus daiteke, ETB1. Haur eta gazteei zuzendutako ETB3 katea ikusterik ez dugu. Eta hori gabezia handia da, adin tarte horretarako dagoen eskaintza guztia gaztelanian dagoelako soilik.

Itzalaldi analogikoa gertatu zenetik, 2009ko abendua, gurean ETB Lurreko Telebista Digital (LTD) bidez ikusteko aukerarik ez dago. Igorgailu analogikoez eskaintzen duten kalitatea ez da nahi bezain ona eta bi kate aldagailurekin ibiltzera behartzen gaitu. Horri

gehitu behar zaio telebista aparailu berriek ez daudela kanal analogikoak hartzeko prestatuta. Gainera, aurki European guztira zabalduko den itzalaldi analogikoa gertatuko da eta horrek ETB ikusteko aukerarik gabe utziko gaitu.

Jakina da, hedabideak direla gaur egun hizkuntzei bizitasuna emateko ezinbesteko tresna eraginkorrak. Garrantzi hori aitortu zaie hedabideei Euskararen Legearen III.tituluan. Horregatik, Nafarroako Parlamentuan 2013ko urriaren 25ean onartutakoaren harira, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Erakunde honek LTD bidez ETB Nafarroa guztian ikusteko bide berriak lantzea eskatzen dio Nafarroako Gobernuari.

2) ETB Nafarroan lehenbailehen ikusteko behin behineko formulak onartzeko eskatzen dio erakunde honek Nafarroako Gobernuari. Esaterako, egungo ETBren sare analogikoa digitalizatuz edo bestelako neurriekin.

3) Erakunde honek mozio hau Nafarroako toki erakunde guztietara bidaltzea, haiek aztertu dezaten.

4) Mozioa Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta ETBko buruei bidaltzea.

5) Mozioaren berri hedabideetan zabaltzea.

9.-2013KO KONTUAK: BEHIN BETIKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2014ko apirilaren 28an egindako bileran, erabaki zuen 2013ko Kontu Orokorrei aldeko txostena ematea eta espedientea 15 egunez jendaurrean paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkezteko.

Ikusirik jendaurreko epean ez dela alegaziorik eta erreklamaziorik aurkeztu.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2013ko kontuen espedientea behin betikoz onartzea.

2) 2013ko kontuen espedientea Nafarroako Gobernura bidaltzea.

10.-ARANTZAKO BESTAK.

Ikusirik 2014ko bestetako egitaraua, 14tik 17ra, biak barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2014ko bestetako egitaraua onartzea.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 31. ebazpenetik 46. arte).

12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira izan.

Bertzerik gabe, gaueko 21:15ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Jaime Iturria Mitxelena jn.

Ander Almandoz Indacochea jn.

